

Donostialdeko ikastolok EHIko VII. Batzarra prestatzen

Donostialdeko beste ikastolekin batera (Axular, Herri Ametsa, Santo Tomas eta Udarregi), Zurriola Ikastolako Artezkari Kontseiluko, Zuzendaritza taldeko eta Langile Batzordeko kideok Ikastolen Elkarte VII. Batzar Nagusiko 1. aurkezpen bileran hartu genuen parte, lehengo asteazkenean ([info +](#)).



Zurriola osatzen jolasean eta euskaraz

Zurriola Ikastolakideon komunitatea euskaratik eta euskaraz sendotzeko asmoz, dagoeneko ezagunak diren bi gunetan parte hartzeko gonbita luzatzen dizuegu: [Egunean Behin](#) eta [Tropela](#). Animatu, euskaraz jolastu eta ondo pasa!



Irakaslego osoa ikasleen jarraipenaz

Ikastolako irakasle klaustru osoa bildu zen atzo Hurrako areto nagusian. Bilkura honetan, besteak beste, **ikaslearen jarraipenari** buruz jardun zuten, Hobekuntza Pedagogiko Iraunkorreko proiektuaren barruan. Halaber, Ikastolako Irakasleen profila zehazten hasteko lan-dinamika bat egin zen.



Bueltan da Errigora

Bertan dugu berriro olio eta kontserben Errigorako kanpaina. Eskaearak martxoaren 12 arte egin daitezke [bertan](#). Nafarroa hegoaldeko produktu bikainak, ekoizlearen jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta nahi badituzu, ez ezazu aukera pasatzen utzi.



Arloarteko proiektua BATX1en

Batxi 1eko anatomia eta biologiako taldeko ikasleek proiektu interesgarri bat egin dute bigarren ebaluazioan ikasitako guztia aplikatuz. Lan hau talde-lan bat izan da eta honen helburua irakasleak emandako egoera erreal bati aurre egitea zen; adibidez: asma eta kolesterolaren zuen korrikalari gaztea; hileroko irregularra zuen emakumea; diabetesa zuen gaztea...



LH3koak UBIK-en

Pasatako bi aste hauetan LH3. mailako lagunok Tabakalerako UBIK sorkuntza liburategian bina saio izan ditugu. Ikastolan zentzumenak landu ondoren, Tabakalera entzumenean zentratu gara, izan ere, askotan entzumena bigarren maila batean geratzen baita eta ez diogu duen garrantziari erreparatzen.



LH4, 5 eta 6koak Kontzertu pedagogikoan

Astearte eta asteazkenean Kursaalaren izan ziren LHko ikasleak EOSek eskaintzen zuten kontzertuan. Bertan Maitasun Epikoak izeneko entzukizunaz gozatu ahal izan zuten 4, 5 eta 6. mailakoek.



INAUTERIAK - Hurra eta auzoa [ruditan](#).

OHARRAK / AGENDA:

- LH4: Ubik Tabakalera. Martxoak 3 (C taldea), 4 (B taldea) eta 5 (A taldea). Goiz pasa.
- DBH3: Heziketa afektibo sexuala eta genero indarkeria. Formakuntza. Otsailak 26.
- Jangela: Martxoko [menua](#).
- Eskola Kirola: 15. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- Zurriola Musika eta Dantza Eskola: Musika egiten duten HH4 (Jolas musika) eta HH5eko (Musika txokoa) guraso bilera. Martxoak 13.
- Aisialdi jarduerak haurrentzat: [Otsailak 28-Martxoak 1](#).
- Oporrak Bakean: Haur Sahararren harrera [programa](#).
- "Gure Kasa" saiorako Castinga: LH3-6. [Informazioa](#).
- Parketarrak: Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean. [Auzoan](#). [Orokorra](#). [Zirkularra](#).

UDAKO AISIALDI ESKAINTZA 2020

3-5 URTE
FRUZI FRUZIEN UDAKURU PROIEKTU

5-12 URTE
FRUZI FRUZIEN INGELIS UDAKURU PROIEKTU
DUNO: IZARRA/ANGARA UDAKURUAK
HERRIKOAK/ELKARREKIN UDAKURUAK
SURF UDAKURUAK
ITXAKOAK/ETA/ETXAKOAK/ELKARREKIN
GATTE EGONALDIAK
BONETAKA

12-17 URTE
INGELIS UDAKURUAK/ BOKAZITA
INGELIS UDAKURUAK/ BOKAZITA
ATZERRIARAKO BOKAZITA/ BOKAZITA
GATTE EGONALDIAK

Ikastolen Elkarte

MARTXOAREN 28an

***Ordua baino 15 min lehenago egon beharko dute aretoan**

JANZKERA: Praka ilunak eta kamiseta koloreduna taldearen arabera

LH 1 10.00etan (9-10.45min)
LH 5 10.45etan (10-30min)
LH 4 11.30etan (11-15min)

Praka ilunak eta kamiseta berdea
Praka ilunak eta kamiseta gorria
Praka ilunak eta kamiseta urdina

Tipimusik

Zurriola ikastola
MUSIKA ETA DANZAKO ESKOLA

Atzerrikoak Zuhaitzi ikastolaren